Verter recycling 2002 S.L.

**VERTER RECICLING ENPRESAREN ADIERAZPENA, ERRESKATE-LANEN AURRERAPENEI BURUZ**

*Zaldibar, 2020ko abuztuaren 17a*.- Giza arrastoak topatu dituztelako albistea lasaigarria da guretzat, eta espero dugu Albertoren eta Joaquínen gorpuak guztiz berreskuratzea.

Hasiera-hasieratik hori izan da gure lehentasuna, baita Eusko Jaurlaritzako lantaldeena ere. Helburu hori lortzeko lan egiten jarraitzen dute, eta guk erabat lagundu diegu denbora honetan guztian.

Eskerrak eman nahi dizkiegu erreskate-taldeei, gorpuak aurkitzeko etengabe egiten ari diren ahaleginagatik eta arduragatik; izan ere, lan gogorra, zaila eta delikatua da.

Gure aldetik, agintariekin lankidetzan jarraituko dugu, erreskate-lanak eta lursaila egonkortzeko lanak burutzeko eta isuri diren hondakinei irtenbide seguru bat emateko, bai eta, ikerketa-lanetan, luiziaren arrazoiak argitzeko ere. Enpresak ahal duen guztia egiten jarraituko du egiteko dauden lanetan, teknikari espezializatuak eta eskura dituen bitartekoak bideratuta.

Verter Recycling enpresaren *online* jakinarazpenak: www.verter.eus

*Informazioa: Arturo Zubiaga*

*Tel.: 94 415 86 42*